



Nire Familia
Mi familia

Mihise gaineko olio pintura / Óleo sobre lienzo. Hacia 1905 ingurukoa



Elgetako bohemioa. Autorretratu
El bohemio de Elgeta. Autorretrato

Taula gaineko olio pintura / Óleo sobre tabla. Hacia 1907 ingurukoa

Pablo Uranga margolanen dohaintza

Pablo Uranga margolari gasteiztarraren hiru margolan aurkeztuko dira Arabako Arte Ederren Museoan, hirurak ere haren iloba Elena Maria Uranga Azpirik emandakoak: *Elgetako bohemioa. Autorretratu*, *Nire familia* eta *Liniers jeneralaren atxiloketa*. Hiru margolan horiek osatu egiten dute dagoeneko berez museoan sano ugaria den margolariaren presentzia. Haren lehenengo lanak 1964an erosi zitzaizkion margolariaren seme Pablo Uranga Lejarretari.

Pablo Uranga (Gasteiz, 1861 – Donostia, 1934) artista garrantzitsua da margolaritzaren euskal eskolan. Gasteizko Marrazki Akademian eta Jerez de la Fronterako eta Madrilgo San Fernandoko arte ederren akademietan ikasitakoa, 1889 inguruan Parisera jo zuen, non, bestek beste, Ignacio Zuloaga, Paco Durrio, Darío de Regoyos eta Santiago Rusiñol artistekin batera lan egin eta bizimodu bohemioa eraman zuen urteetan zehar. Supituki Paris utzi eta Gipuzkoako Elgetan egonkortu zen: familia harremanek lotzen zuten herri horretara. Bizi osoan zehar izan zen Zuloagaren adiskide; proiektuak eta bidaiak egin zituzten batera; bidaiak Espainian zehar, bidaiak Estatu Batuak eta Kubara (1924-1925). Azken bidaiak horretan hainbat hiritan erakutsi zituzten beren lanak, hala nola, New Yorken, Miamin eta Habanan.

Haren margolaritzak impresionismoaren eragina dauka, batez ere, Frantziakoarena; baina, suharragoa eta ol-

Donación de obras de Pablo Uranga

El Museo de Bellas Artes de Álava presenta tres obras del pintor vitoriano Pablo Uranga, donadas por su nieta Elena María Uranga Azpiri, *El bohemio de Elgeta. Autorretrato*, *Mi familia* y *El prendimiento del General Liniers*, que completan la ya importante presencia de este pintor en el Museo, iniciada en 1964 con la adquisición de varias obras a Pablo Uranga Lejarreta, hijo del pintor.

Pablo Uranga (Vitoria-Gasteiz, 1861 – Donostia-San Sebastián, 1934) es un artista importante dentro de la Escuela Vasca de Pintura. Formado en la Academia de Dibujo de Vitoria, y en las Academias de Bellas Artes de Jerez de la Frontera y San Fernando de Madrid, hacia 1889 se traslada a París donde vivirá años de trabajo y bohemia con artistas como Ignacio Zuloaga, Paco Durrio, Darío de Regoyos o Santiago Rusiñol. De forma imprevista deja París para instalarse en la localidad guipuzcoana de Elgeta, a la que le unían lazos familiares. La amistad con Zuloaga perdurará toda su vida y juntos compartirán proyectos y viajes por España o como el que les lleva en 1924-1925 a Estados Unidos y Cuba, exponiendo en varias ciudades como Nueva York, Miami o La Habana.

Su pintura tiende al impresionismo de influencia francesa, pero de carácter más impetuoso y violento. Es un artista innovador que bebe de la tradición clásica española,



darkorrago da. Urangak Espainiako tradizio klasikoari atxikitako Velázquez eta Goyaren eragina jaso zuen; margolari berritzailea zen ordea, aipatutako legatua ikuspegi berri batez islatu zuelako, aurretik ezagututako Frantziako abangoardiaren eraginaren baheari esker. Gai ugari landu zituen, nola historikoak hala erlijiozkoak, irudi kostunbristak, paisaiak zein izaera intimistakoak.

Elgetako bohemioa 1907ko autorretratua da; oso aske egindakoa, ez du horregatik bazter uzten erretratutakoaren psikologia eta eitea. Gerritik gora ageri da, beltz jantzita eta ohiko txapela buruan, dena ere hondo grisaxkaren aurrean. Urangak, bere eginkizunean murgildurik –paleta eskuetan duela igartzten da–, ikusleari begiratzen dio aurpegia ilun-argitan duela; aurpegi zirriborratua, pintzelkada gutxikoa; baina, kemen eta indarrez betea, argi eta garbi Flandriako tradizioaren zordun. Badakigu margolariaren margolan gogokoenetako bat izan zela, hala jasotzen baitu bere lagun eta arte-merkataria Andres Garmendiari idatzitako eskutitzak: “... Flandriako margolari bat ematen dut, kolore bero eta aldi berean gris horiekin; ez nau harritzen gustukoa izan dezazun, ni neu ere liluratuta nauka hura egiteko jardunbidearen eztitasunak”.

Nire familia margolanean Urangak emazte Prudencia Lejarretaren, alaba Maritxuren eta bere irudia margotzen ditu. Margolan heldua da, egikera bitxia erakusten duena, zeren eta erdia umeari lurrera erori berri zaion panpina batek hartzen baitu. Egilea jolastu egiten da ikuslearekin: eszena bat beste baten barruan sartzen du, eta horren barruan bere burua, margolari lanetan, ezarrita bere astoaren aurrean. Ezin da ukatu Espainiako tradizio klasikoaren eragina, Velázquezi egiten dion erreferentzia.

Formatu handiko margolaritza historikoaren lekukoa da *Liniers jeneralaren atxiloketa* margolana. Buenos Aireseko 1910eko nazioarteko erakusketara aurkeztu zuen. Erakusketa horrek *Maiatzeko iraultzaren* 100. urteurrena ospatzen zuen. Iraultza horrek Rio de la Platako Probintzia Batuen askatasuna aldarrikatu zuen. Margolanak zera erakusten du: Liniers-ek, ingelesen aurkako garaipena lortzean heroi bilakatu zena, abertzaleen aurka dihardu Maiatzeko Iraultzan, baina atxilotua da eta exekutatu.

Zaldiak, eskortzo bortitz bidez, bitan banatzen du eszena; batean, jenerala eta haren gizonak, batzuk oraindik eraikinaren babesean; nabarmena haien begitartea, batzuen ia karikatura dena. Bestean, abertzaleak, Argentinako koloreak kapeletan dituztenak, eraso egiteko pronto. Eszena bizia da, mugimendu izoztuko, ordea; Urangaren lortza gorri-horien tonuen bizitasunean eta zeruaren urdin-arrosetan antzematen da, oso ohikoak haren lan gutzietan. ■

de Velázquez y Goya, e interpreta este legado desde una nueva perspectiva tamizada por la influencia de la vanguardia francesa. Autor de temática variada, aborda tanto el género histórico como los encargos religiosos, escenas costumbristas, paisajes y otras de carácter más intimista.

El Bohemio de Elgeta es un autorretrato de 1907. De factura muy suelta, no abandona sin embargo el interés por captar la psicología y la expresión del retratado. Se pinta de medio cuerpo, vestido de negro y tocado con su clásica txapela sobre un fondo grisáceo. Uranga, distraído de su tarea, ya que se adivina la paleta entre las manos, se gira hacia el espectador con su rostro en claroscuro, un rostro esbozado, con muy pocas pinceladas, pero llenas de vigor y fuerza, claramente deudor de la tradición flamenca. Sabemos que era uno de los cuadros favoritos del artista tal y como se recoge en la carta que escribe a su amigo y marchante Andrés

Garmendia: “... parezco un pintor flamenco, con esa entonación cálida y al mismo tiempo gris; no es extraño que le haya gustado a usted, yo mismo estoy muy admirado de la dulzura con que está ejecutado”.

En *Mi familia* Uranga se retrata junto a su mujer, Prudencia Lejarreta, y su hija Maritxu. Se trata de una obra de madurez que muestra una composición peculiar, ya que el centro de la misma lo ocupa una muñeca que se le acaba de caer al suelo a la niña.

El autor juega con el espectador al situar una escena dentro de otra y se incluye en ese momento íntimo como un pintor, una vez más, sentado delante de su caballete. Las referencias a la tradición clásica española, a Velázquez, son innegables.

El prendimiento del General Liniers es un buen ejemplo de pintura de historia de gran formato. La presentó a la Exposición Internacional de Buenos Aires de 1910, que conmemoraba los 100 años de la *Revolución de Mayo* que declaró la independencia de las Provincias Unidas del Río de la Plata. Representa el episodio en el que Liniers, antes héroe por la victoria sobre los ingleses, lucha en la Revolución de Mayo contra los patriotas, siendo finalmente capturado y ejecutado. El caballo, con un violento escorzo, separa la escena en dos; en una de ellas, se encuentra el general con sus hombres, algunos aún refugiados en el edificio, y destaca por la expresión de sus rostros que en algunos casos llega a la caricatura. En la otra mitad, los patriotas, con los colores de Argentina en sus sombreros, proceden a atacar. Es una escena viva, con un movimiento casi congelado, donde la impronta de Uranga se aprecia en el colorido de sus tonos ocre y en los rosas y azules del cielo, tan característicos de toda su producción. ■



Liniers jeneralaren atxiloketa / El prendimiento del General Liniers

Mihise gaineko olio pintura / Oleo sobre lienzo. 1910

